

OSTEGUNA

2020/05/14
8. urtea, 1.238. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Orixeko eta Laskoraingo ikasleek etxean jarraituko dute

Tolosako bi ikastetxeetako batxilergoko ikasleak ez dira astelehenean eskolara itzuliko; aurrez aurreko eskolak beharren arabera eta ekainean emango dituztela esan dute //4

«Lehenengo lana prebentzio mahai bat osatzea izan zen»

OLATZ PEON
TOLOSAKO ALKATEA

Bi hilabete pasa dira alarma egoera ezarri zutela eta Tolosako alkateak balantzeari egin du; udalak garapen ekonomikoan jarri du azpimarra //3

Ahal den moduan entrenatzen ari da Eneko Gurrutxaga

Mendi bizikletako probak bertan behera geratu dira, baina amasarrak espero du mendi duatloiak egin ahal izatea //6

Turismoan eman den geldialdiak gogor kolpatu ditu

Asteasuko Otardi Landetxea ezin dute ireki oraindik eta etorkizuna beltz ikusten dute; astelehenean irekiko dute Tolosako Bide Bide //5



IMANOL GARCIA LANDA

«Oso zaila izango da aurten txapelketaren bat egitea»

IRENE CAMINOS TRIAL TXIRRINDULARIA

Tolosako trial txirrindularia hasi da entrenatzen trialeko hainbat parketan, baina beste kirolekin bezala, berean ere txapelketa guztiak geratu dira bertan behera; osasun larrialdia pasa eta normaltasuna iritsi zain dago //7



Emakumeei babesa adierazteko, 'Ez zaude bakarrik' kanpaina jarri zuen martxan Tolosaldeko Asanblada Feministak. E. O.

Konfinamenduak indarkeria matxistan duen eragina aztertu da

Tolosako Udalaren ustez, «funtsezkoa» izaten ari da eskaintzen den laguntza, eta «ezinbestekotzat» jo ditu indarkeria jasan duten emakumeentzako arreta gunek.

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei bideratutako laguntza telefonoetara egindako deiek ezohiko moduan egin dute gora Covid-19ak eragindako osasun alarmagatik ezarritako konfinamendua dela eta. «Orain arte indarkeria matxista identifikatzeko zeuden zailtasunei, hainbat egoera normaltzat hartzeko jokabideei eta inpunitate sozialari, ezohiko egoerak eragin duen ziurgabetasuna gehitu behar zaio», adierazi dute udaletik.

Ahalduntze eskoletatik, emakumeen etxeetatik, boluntario taldeetatik, emakume elkarteetatik eta talde feministetatik laguntza sareen zein telefono mugikorretan sortutako taldeen bidez azken asteetan eskaini den

laguntza «funtsezkoa» izaten ari dela aitortu dute, «indarkeria egoera batean bizi diren emakumeei babesa emateko».

Horren guztiaren eraginez, eta emakume horien segurtasuna bermatzeko, udalak «beharrezkotzat» jotzen du telefono bidezko arreta emateaz gain, emakume horiengana iristeko bide digitalak ugaritzea eta mezuak ikuspegi komunitario batetik zabaltzea. «Emakumeek *online* baliabideak eskura izatea eta sare sozial edo Whatsapp bidezko komunikazioak ugaritzea ere ezinbestekoak izango dira aurrerantzean, baita mezuak, indarkeria egoeran bizi diren emakumeei bideratzeaz gain, komunitateari eta auzotarrei bideratzea ere».

KONTROL SENTSAZIOA, HANDIA
Etxeko konfinamenduak ere indarkeria matxista kasuetan «modu zuzenean» eragin duela azpimarratu dute. «Telefono bidezko arretak nabarmen egin du gora, baina kalera irteteko zailtasunek murriztu egin dute salaketa kopurua. Horrez gain, konfintuan izan behar da jartzen diren salaketa asko bikote ohiaren aur-

kakoak izaten direla, indarkeria kasu asko kontrolaren aterkipean ematen direla, eta konfinamenduan erasotzaileek emakumeenganako duten kontrol sentsazioa areagotu egin dela».

Egoera horretan bizi diren emakume askok haien burua eta etxeko gainerako senideak babesteko eta indarkeria egoerak saihesteko «egiten duten ahalegina eta hartzen duten sumisio jarrera» azpimarratu nahi du udalak. «Gaia sakonagotik aztertuta, ondorioztatu da konfinamendua haien erasotzaileekin igarotzen ari diren emakumeak psikologikoki egiten ari diren ahaleginak larritasun ugaritako ondorioak sorrarazten ari dela».

Horregatik, konfinamendutik irteteko faseetan ere lanean jarraituko du udalak, eta «ezinbestekotzat» jotzen du indarkeria jasan duten emakumeei arreta emateko gunek sortzea, «bizitako egoerak sorrarazi dizkien ondorioak identifikatu, artatu eta erreparatzeko. Horretarako, emakume horiek elkarbizitza eta bizitza sostengatzeko egin duten ahalegina gizartean eta erakundeetan ikusarazi behar da».

GUTUNA

Ez zaude bakarrik, eta ezta nire erasotzailea ere

Nork uzten du erasotzaileak botere edo domeinu fisiko eta psikologikoaren bidez bere masakulinitatea adieraztea, modu honetan genero botere erlazioak sortuz? Zergatik? Zertarako?

Nork uzten du emakumeak* bakarrik jasan behar izatea bere erasotzaileak sortzen dion sufimendua? Zergatik? Zertarako?

Nork uzten du emakumea* tratatu txar matxistei aurre egiteko baliabiderik gabe? Zergatik? Zertarako?

Nork ekiditen du legeak modu bortitzean eragitea erasotzaile matxistaren bizitzan, bere bizitza hankaz gora jarri arte, berak emakumearekin* egin duen bezala? Zergatik? Zertarako?

Nork uzten ditu gure seme-alabak, etorkizuneko helduak izango direnak, babesik gabe hainbat egoera matxisten aurrean, horietako batzuk ikaragarri bortitzak izanik? Zergatik? Zertarako?

Nork zikindu eta txikitzen du biktimaren istorioa bera bihurtu arte erasoaren errudun? Zerga-

tik? Zertarako?

Galdera hauen erantzunak babes gabe uzten dituzte biktimak, izan ere, erantzun horiek babes-tu, lagundu eta erasotzailearekin batera dihardute indarkeria matxista jasaten duenean.

Nor? Erraza da erantzuten, sistema patriarkala bere botere juridial, politiko, instituzional eta komunikabideekin, eta, noski, lokartuta eta engainatuta daukan jendartearen zatiarekin.

Zertarako? Jendartearekiko eta gure planetaren aberastasunekiko euren domeinu boterea ez galtzeko.

Zergatik? Hau luzeagoa da. Guk hausnarketa batekin utziko zaituztegu: zergatik uzten dugu hau guztia gertatzen? Zergatik onartzen ditugu desorekez beteriko jendarteak eta hauek sortzen duten sufimendua?

Indarkeria matxista modu eraginkor batean erasotzeko moduko birus gero eta handiagoa da, baina, oso baliabide gutxi bideratzen dira pandemia erasokor honen aurka. Zer egingo duzu zuk 'normaltasun berrian' pandemia hau suntsitzeko?

Aizpea Brea Lurgatz Talde Feministarenizenean, Amasa-Villabona

Erabilgarri daude Baratze Parkeko eremu komunak

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Maiatzaren 7az geroztik Iurrea-mendiko Baratze Parkea bere osotasunean erabili ahal da. Apirilaren 15ean baimendu zuten norbera bere baratzean jardutea, baina galarazita zegoen eremu komunak erabiltzea. Aurrerantzean hortaz, mugarik gabe erabili daiteke eremua, baina erabiltzaile guztien osasuna babesteko hainbat segurtasun eta prebentzio neurri barne hartzen dituen protokolo bat zehaztu dute.

Batetik, COVID-19aren sintomarik duten erabiltzaileek, etxean geratu beharko dute. Bestetik, erabiltzaileen artean bi metroko segurtasun distantzia mantendu beharko da. Baratze bakoitzean, gainera, erabiltzaile bakarrak aritu beharko du. Konposta egiteko guneetan ere pertsona bakarra aritu ahal da lanean. Lanabesen biltegian eta aldageletan ere pertsona bakarra sartu ahal izango da aldi berean; momentu berean bi pertsona egon

ahalko dira txabolan, bat aldageletan eta bestea tresnen gelan.

Higiene neurriak ere hartu beharko dira. Txabolara sartu aurretik eta irtetean ura eta xaboia-ekin garbitu beharko dira eskuak. Erabilitako lanabesak eta ateetako heldulekuak desinfektatuta utzi beharko dira; horretarako tresnak urarekin modu arruntan garbitu ondoren heldulekuak urarekin eta lixibarekin desinfektatu beharko dira. 4 lainoztagailu ere jarriko dira (txabolako 3 departamenduetan bana, eta komunean bestea), erabiltzaile bakoitzak ukitutako materiala garbitu ahal izateko.

Erabilera pertsonalerako beharrezko produktuak eta bestelako babes neurriak, norberak eraman beharko ditu. Instalazioetako garbiketa lanak indartu egingo dira; txandak antolatuko dira eta horiek betetzea nahitaezkoa izango da. Lixibarekin eta urarekin garbituko dira, ireki aurretik. Azkenik, txabolako toallak kendu egingo dira.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zaintza. Umeak zaintzeko edota adin guztietarako klase partikularak emateko emakume arduratsua eskaintzen da. Intersatuak deitu 650 890 329 telefonora (Leire).

Iñigo Terradillos / Irati Saizar

Gaur bete dira bi hilabete Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik. Astero etortzen zaizkien neurriak udalerrira egoitzeko lanetan ari da ordutik Tolosako Udala. Konfinamendua arintzen doan heinean, aurrera begira jartzen hasiak direla dio Olatz Peon (Tolosa, 1969) Tolosako alkatea.

Zer balantze egin duzue?

Inork ez zuen espero bere ametsik gaiztoenean ere mundu mailako pandemia baten aurrean aurkituko ginenik. Oso modu azkarrean erreakzionatzera bultzatza gaitu horrek, eta eredu garria izan da euskal erakunde guztiek, baina, bereziki, udaletxeek egindako lana. Orain bi hilabete, non gaixotasunak Tolosa eta bereziki Iurreamendi egoitza zuzenean kolpatu zituen, lehentasuna segurtasun eta osasun egoerari aurre egitea zen, eta orain, aurrekoa ahaztu gabe, garapen ekonomikoari laguntzeko fase horretan gaude.

Birusa hedatzen ari zen unean, Tolosaldea biztanleko positibo gehien zituen Gipuzkoako eskualdea izan zen.

Eusko Jaurlaritzak egunero ateratzen dituen datuen zerrendan, Tolosa hain goian ikusteak ardurara handia eman zigun; gorrotatu egin nuen zerrenda hori. Bazirudien ezinezkoa zela hori geldiaraztea. Garai horretan, bereziki osasun soziosanitarioko langileek, zuzendaritza taldeek eta Foru Aldundiko arduradunek sekulako lana egin zuten, eta egoerari buelta emateko aukera izan dute. Egindako lan aparta eskertu nahi diet. Egun oso kritikoak izan ziren ordea, eta nahiz eta gaixotasuna oso ardazturik egon Iurreamendi egoitzan, ematen zuen ezin geniola horri aurre egin edo eutsi. Baina tira, segurtasun neurri ikaragarriak hartu ziren, lana oso ondo egin zen eta zorionez, buelta eman zitzaion.

Zergatik izan da hain egoera desberdina Iurreamendi egoitzan eta Uzturre zentroan?

Alarma pizten hasi zenerako Iurreamendi egoitzan gaixotasuna barruan zegoen eta Uzturren ez zen horrela gertatu. Uzturre egoitzan gaixotasuna egoitza barrura ez sartzea lortu dute segurtasun neurriak hartuz eta aldiz, Iurreamendin zegoen gaixotasuna gehiago ez hedatzeko, bestelako lanak egin behar izan dira. Nik uste dut balioan jartzekoa dela bi egoitzetan egindako lana.

«Garapen ekonomikoari bidea ematea da orain helburu orokorra»

OLATZ PEON TOLOSAKO ALKATEA

Kutsatuen zerrendan Tolosa hain goian ikusteak arduratu egin du alkatea; orain, ordea, atzekoa ahaztu gabe aurrera begira jarriak dira eta herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie edukitako jarreragatik.



ITZEA URKIZU

Lehendabiziko egun haiek nola joan ziren udalean lan egiteko moduari dagokionez?

Kalean bizitza gelditu zen moduan, udalean prozedura guztiak ere eten egin ziren. Lehenengo lana prebentzio mahai bat osatzeta izan zen, eta mahai horretan osasun egoerari aurre egiteko oinarrizko zerbitzu batzuk identifikatu ziren: batetik, herritarren arreta zerbitzua, bestetik, udal-

«Aurrera begira, lotuta ditugun hitzarmen eta kontratu guztiak mantentzen saiatuko gara»

tzaingoa, eta azkenik, gizarte zerbitzuak. Prebentzio mahai horretan ordezkari politiko guztiek hartu dugu parte, bai gobernuak, bai oposizioak. Bilerak goizero egiten genituen 08:30ean, aurreko eguna baloratzeko eta zetorrena prestatzeko. Datuak eman ostean, udal barruko lana antolatzen genuen batetik, eta kalera begirako antolaketa egiten ge-

nuen, bestetik. Ni neu jartzen nintzen harremanetan egunero klinikarekin ere. Osasun eta segurtasun datuak aldatu direnean, ordea, udaletxean bertan ohiko antolaketa moldatzen saiatu gara; langileak etxetik lan egiten dute, nahiz eta batzuk bertatik lan egin behar duten.

Oro har osasun krisi hau nola kudeatu duzue?

Nik uste antolaketa egokia izan dela udal barruan; gure artean koordinazio ona izan dugu. Egoeraren aurrean langileen erantzuna ere oso ona izan da, prest izan direlako beste hainbat lan egiteko. Gaitasuna izan dugu administratiboki udalaren eskumeneko zerbitzuei aurre egiteko. Orain, konfinamendua arintzeko fase honetan, beste hainbat lan etorri zaizkigu. Beste erakunde batzuetan hartzen diren erabakiak, gero herrietan gauzatzen direnean, ikuskapena herriaren gain gertatzen da eta udalak dira herritarrekin harreman zuzena duten erakundeak. Horren aurrean, egun hauetan guztiek egin duten lana oso positiboa izan da.

Astelehenetik hainbat zerbitzu martxan dira. Nola ari da Tolosa horri erantzuten?

Konfinamendu garaian neurri batzuk hartu behar izan genituen segurtasunari dagokionez. Gizarte zerbitzuen saila gakoa izan da horretan eta baita emergentziako taldea ere. Gaixotasunari aurre egiteko eta modu seguruan egoteko etxean egotea izan da neurri bat, baina, hainbat kasutan, eta erreferentzia egin nahi diot indarkeria sexistari, arriskuan zeuden emakumeentzako etxea ez da izan oso eremu segurua. Gai horiei guztiei jarraipena egiten ari gatzazkio. Baina, orain, hainbat jarduera martxan jarri behar dira, eta segurtasuna eta osasuna lehenetsiz, herrietako garapen ekonomikoari bidea ematea da helburu orokorra. Ezinbestekoa da herriak bizirauteko. Azkenengo momentuetan ari zaizkigu neurri berriak iristen, bereziki igande gauetan, eta guretzako lan ordu bilakatu dira astelehenean guztia prest izateko. Lehen momentutik sektore ezberdinekin harremanetan egoten ahalegindu gara. Horretarako, hiri ekonomi mahaia sortu da eta merkataritza, ostalaritza, lehen sektorea, museo eta enpresetako ordezkariak bildu ditugu talde batean, eta astero errepasatzen ditugu agindu berriak eta horiei erantzuteko neurriak.

Azoka, esaterako, polemikarako gai bat izan da.

Tolosako Udalak azokari ematen dion babes eta eskaintzen dion ardura erabatekoa da. Badakigu, hasiera hartan, Tolosan zein egoeratan geunden, eta gainera, osasun sailatik agindu bat jaso genuen, esanez, ez zelagomendagarria azoka egitea eta baimena ukatzeko agindu bat ere jasoko genuela kalean azoka hori antolatzeko. Beraz, udalak ekimen bat landu zuen azokako produktoreak beren ekoizpena etxetara

eramateko eta lanean hasi ginen azoka modu seguruan antolatu ahal izateko. Betiere, osasun sailak markatzen zituen irizpideak eta baimenak kontuan hartuz. Tolosak zuen egoerarekin, osasun sailak egindako gomendioei uko egitea ez litzateke arduraz jokatzea izango. Beraz, nik uste, Tolosako Udalak babes mantentzeko ardura osoarekin lanke-ta handia egin duela, eta ikusi da egokia izan dela. Udalak baliabide ekonomiko eta giza baliabide seguruan eta egokian egin ahal izateko.

San Joan festak eta uda gertu dira; Usabal kiroldegia ere hor dago. Zein aurreikuspen dituzue?

Sanjoanak oso festa maitatuak dira. Bertan parte hartzen dugun eragileok bat gatoz aurten ezingo direla ohiko egoeran ospatu. Jende pilaketa ekidin behar da, eta

«Aurten San Joan festak ezingo dira ohiko moduan ospatu; beste moduren bat aztertzen ari gara»

azken urteetan arrakasta itzela izan dute jaietan antolatzen diren hainbat jarduerak. Lanean ari gara beste modu ezohiko batean ospatzeko. Bestalde, aurreikuspen bat egiten ari gara kiroldegia irekitzean zein baldintza izan beharko dituen jakiteko. Hala ere, Eusko Jaurlaritzatik oraindik ez dizkigute bidali bete beharreko neurriak zeintzuk izango diren.

Aurrekontuetan murrizketak espero dira. Zein ataletan eman daitezke?

Kalte ekonomikoak eremu pribatuan izango dira, baina baita eremu publikoan ere. Esaterako, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa %25 murriztuko du Foru Aldundiak. Kontuan izan udal-tako sarrerarik handiena hortik etortzen dela; bestetik, tasei dagokienez eta jarduera gelditu denez, sarrera gutxiago izango du udalak; gizarte arloari dagokionez ere behar handiagoak sortuko dira herrietan. Orain garapen ekonomikoari laguntzeko plangintzak osatzen ari gara eta hor ere diru bat egokitu behar da. Aurtengo urtea amaituta ere datorren urtean oraindik neurri asko hartu beharko ditugula aurreikuspen behar dugu. Eraginak mila izango dira, eta partidak banan-bana aztertzen ari gara. Hala ere, hitzarmen eta kontratu guztiak mantentzen saiatuko gara.



ERIZAINEN LANA ESKERTU DUTE

Erizainen Nazioarteko eguna izan zen asteartea eta Amasa-Villabonako Udalak profesional hauen lana goraipatu nahi izan zuen, «garai konplikatu hauetan». Langile hauek herritarrentzat egin duten esfortzu guztiaz jakitun dela esan dute Arantza Lopez Gizarte Zerbitzueta zinegotziak eta Beatriz Unzué alkateak. Amasa-Villabonako Osasun zentroan eta Santiago egoitzan izan ziren lore sorta banarekin, bertako erizainen lana aitortzen eta eskertzen. ATARIA

Positibo bat gutxiago zenbatu da eskualdean

Atzo publiko egindako datuetan, Anoetan kasu bat gutxiago zenbatu dute. Alarma egoera hilabetez luzatzea aztertzen ari dira

Erredakzioa

Positibo berririk gabe jarraitzen du eskualdeak bigarren egunez. Kasu honetan, gainera, bat gutxiago zenbatu dute Eusko Jaurlaritzatik. Atzo goizean emandako datuen arabera Anoetako herrian 13 positibo egon direla azaltzen da. Orain arte, 14 zenbaitzen zituzten. Horrek ez du esan nahi sendatutako herritar bat denik, izan ere, herrietako sendatuen kopurua ez dute ematen datu horietan. Ondorioz, orain arte, eskualdean 246 herritar zenbatu dituzte COVID-19arekin.

Asuncion klinikan gaixorik ospitaleratu gabe jarraitzen dute, Osasun Sailetik esan dutenez.

ALARMA EGOERAREN LUZAPENA

Espainiako Gobernuak alarma egoera beste hilabetez luzatu nahi du. Maiatzaren 24an amaitzen da azken luzapena. Espainiako kongresuko talde guztiekin hitz egiten ari da Pedro Sanchez, akordioa lortzeko eta faseen fasea amaitu arte, alarma egoera mantentzeko. Luzapen berria, autonomia elkargoei botere gehiago emateko izango litzatekeela azaldu dute gobernu-ko iturriek.

Batxilergoko ikasleak ez dira astelehenean eskolara itzuliko

Orixe institutuko eta Laskorain ikastolako ikasleak ez dira datorren astean ikasgeletara itzuliko; aurrez aurreko eskoletara nola itzuli adosten ari dira orain

Jon Miranda

Astelehenetik aurrera Batxilergoko bigarren mailako ikasleak eta Lanbide Heziketan aritzen direnak ikasgeletara itzuliko zirela esan zuen aurreko ostegunean Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak. Iragarpenak zalaparta sortu zuen hezkuntza eragileen artean, eta aste honetan Eusko Jaurlaritzak iragarri du ikastetxeek «autonomia» izango dutela itzuleraz erabakitzeko.

Gauzak horrela, eskualdean Batxilergoko bigarren mailako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeetan ez da aurrez aurreko eskolarik izango astelehenetik aurrera. Joxerra Zalakain Orixe institutuko zuzendariak horrela adierazi du: «Postura nahikoa argia dugu. Datorren asteartean ikastetxeko organo gorenaren

oniritzia jasoko dugu, baina astelehenean ez gara aurrez aurreko eskoletara itzuliko».

Gauza bera nabarmendu du Iñaki Olaetxea Laskorain ikastolako kudeatzaileak: «Astelehenean ikasleak ez dira ikasgeletara itzuliko». Azken orduetan ari dira Ikastolen Elkartean biltzen diren ikastetxeak bilerak egiten, irizpide nagusiak zehazteko. Olaetxeak nabarmendu du ikasleak ikastolara itzuliko direla, baina ez dutela mailaka egin nahi itzulera hori, ikasleen beharren arabera baizik. «Batxilergoko ikasleek datorren astean amaitzen dute ikasturtea, beraz ez du zentzu handirik ikasgeletara itzultzeak. Kurtsua online bukatzearen alde egiten dugu guk, ikusita maila horretako ikasleak direla autonomia handiena dutenak eta lanean ondoen ari direnak», dio ikastolako kudeatzaileak.

Ikastolen Elkartean itzulera nola egin adosten ari dira eta Laskorainen kasuan, azken erabakia artekaritza kontseiluak hartuko du. Olaetxeak aurreikusten du DBHko 4 mailan ikasgaien bat gainditzeko ez duten ikasleentzat errefortzu eskolak emango dituztela aurrez aurre ekaineko bigarren hamabostaldian, eta unibertsitatara sartzeko proba prestatzen lagunduko dietela, presentzialki, Batxilergoko bigarren mailako ikasleei.

Orixe institutuko zuzendariak azaldu duenez, DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleei aurrez aurreko saioak egiteko aukera eskainiko zaie ekainean, «ohiko eta ez ohiko azterketak prestatzeko eta, beti ere, babes juridikoa eta segurtasun neurriak bermatuta baldin badaude». Hala ere, Zalakainek dio DBHko laugarren

mailako eta Batxilergoko lehen mailako ikasle gutxi beharko dituztela aurrez aurreko eskolak, ikasturtea gainditu ez dutenentzat errefortzu klaseak izango baitira. «Batxilergoko bigarren mailan dabilzanek unibertsitatean sartzeko probak izango dituzte uztaila hasieran eta horiek prestatzeko klase presentzialak eskainiko dira. Horrekin batera, segurtasun neurriak hartuta, eskolan espazio batzuk egokituko dira ikasle hauentzat». Bere aldetik Tolosaldea Lanbide Heziketa institutuari galdetuta, TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du hartutako erabakiaren inguruko erantzunik jaso.

KRIKAK HEZKUNTZA SAILARI

Sindikatuak, Eusko Jaurlaritzaren proposamena kritikatu dute, iritzita «are eta arduragabeagoa» dela ikastetxe bakoitzaren ardurapean uztea aurrez aurreko esko-

letara itzultzeko erabakia. Hezkuntza Sailaren ikastetxeetarako itzulera planaren ezaugarri nagusia «inprobisazioa, prezipitazioa eta zehazgabetasuna» dira sindikatuentzat. Ohar bateratua kaleratu dute ELAK, LABek, Steilasek, CCOO-k eta UGTk, eta Hezkuntza Sailari eskatu diote «bere ardurak» bere gain hartzeko, osasuna bermatuko duten baldintzak ahalbidetzeko eta itzulera neurriak eragileekin negoziatzeko. Atzo protesta egin zuten Bilboko Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, *Hezkuntza komunitatearen osasuna bermatu, neurriak negoziatu* lelopean.

Bere aldetik, Denis Itxasok, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak adierazi du Espainiako Gobernuarekin adostu ez duen neurri bat proposatzen ari dela Eusko Jaurlaritzak, itzulera iragarritako. Denis Itxasoren arabera, printzipioz, lehenengo faseko aukeren artean ez dago gelak ireki eta bertan haurrak sartzeko.

Kristau Eskolak ohar bat atera zuen astelehenean. Bertan, Hezkuntza Sailari eskatu zion, besteak beste, ikasgelak maiatzaren ez zabaltzea. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioaren iritziz ere, ez da ikastetxeetara itzultzea planteatu behar berme juridikorik eta segurtasunik ez dagoen bitartean.

Ateak irekitzeko baimenak iritsi dira, baina turismoari begira bizi direnek ezkor begiratzen diote etorkizunari. Larraitz Alkorta Asteasun du landa aterpetxea, baina oraindik ez daki nola jarri martxan familiako negozioa. Josean Martin Tolosako Bide Bide Hoteleko arduradunak ateak irekiko ditu, baina martxan jarri behar delako.

Eneritz Maiz Etxarri

Larraitz Alkorta eta Alfredo Aranburu bikoteak duela bost urte ireki zuen Otardi landa aterpetxea Asteasun.

Nola jaso zenuten ixteko abi-sua?

Aste horretan jada saltsa zegoen, eta zalantzan egon ginen. Aste-buru horretan Aiztondoko txirrindulari proba zegoen eta talde bat genuen, eta zain geunden aurrera egingo ote zuen edo ez.

Uste baino gehiago luzatu da itxialdia. Nola bizitu duzue?

Denak bezala, hamabost egun pasa eta berriz ere martxan egongo ginela uste genuen, baina gero konturatu ginen luze joko duela. Gure aterpetxearen kasua txikia da, eta gure filosofia elkartzeko gune bat izatea da; egoteko, babesteko eta elkartzeko gune bat da. Gure gelak talde-entzako dira. Hamar eta hamabi pertsona sartzen diren gelak ditugu. Bi hilabete hauek ezustean harrapatu gaituzte, eta oraindik ere ez dakigu nola egingo diogun aurre. Zalantza handi bat dugu, eta ez dakigu nola egingo dugun irekiera.

Irudikatzen duzu irekiera?

Tolosako Bide Bide Hoteleko arduraduna da Josean Martin Zentol. Astelehenean irekiko ditu hotelak ateak, baina ia erreserba guztiak erori zaizkie.

Nola hartu zenuten dena ixteko albistea?

Albisteak ez gintuen ezustean harrapatu. Itxieraren aurretik ikusten genuen bazetorrela zerbait. Erreserbetan enpresen bajak jaso eta jaso ari ginen. Gobernuak agindua ematea itxaron genuen, baina zain geunden. Baina ez genuen espero hainbeste luzatuko zenik.

Ia bi hilabete luzatu da.

Bi hilabete hauek oso luzeak izan dira. Oso adi egon gara eta egunero-egunero erreserbak nola ezeztatzen ziren ikusi dugu. Egokia zen erreserba kopurua genuen abuztua eta iraila bitartean. Nazioarteko jendea zen asko, ingelesak, frantziarrak,... baina Europako herri gehienek egin duten lehen gauza izan da erreserbak ezeztatzea. Eta gaur egun, oraindik ere, bajak jasotzen ari gara. Errealitate gordinarekin egin dugu topo.

Astelehenean irekiko duzue.

Bai, hemengo enpresei zerbitzua eskaintzeagatik. Baina gelen

«Atea irekiko nuke, baina ez dakit nola»

LARRAITZ ALKORTA AIZPURUA OTARDI LANDETxea

Asteasuko Otardi landa aterpetxeko Larraitz Alkorta eta Alfredo Aranburuk ez dute irudikatzen etorkizunik, eta zaila ikusten dute.



ATARIA

Gu gogotsu gaude, eta jendea galdezka ari zaigu. Bertako turismoaz bizi gara, batez ere. Gertuko jende, familia eta kuadrillak etortzen dira, eta jende guztia galdezka ari zaigu. Hilabete

hauetarako erreserbak genituen. Herenegun Hazik eman zigun ikastaro bat protokoloa dela eta, eta guk oraindik ere zalantza asko dauzkagu. Talde gelak ditugu eta jangela bat elkarrekin ego-

tekoa, eta ganbara bat elkarrekin gauzak egiteko. Guk dena konpartituta egiteko daukagu pentsatuta, eta gure aterpetxearen helburua hori da, gauzak konpartituta egitea. Eta hori guztia da debekatuta dagoena.

Baina irekitzeko gogorik ez zaizue falta.

Oso gogotsu gaude, eta etorri izan den jendea eta gertukoak ere bai, baina udara begira oraindik ezin diegu erantzunik eman. Osasun neurri aldetik jartzen diren arau horiek direla eta, guk uste dugu bakoitzak jarri behar duela bere aldetik, eta guri dagokigunean arropak, garbitasuna, produktuak,... ez dut irudika-

tzen. Baserri txiki bat da, eta ez dakit nondik emango diogun irtenbidea. Handiengan pentsatuta egiten dira protokoloak. Nik atea irekiko nuke, baina ez dakit nola. Bezeroekin hartu-eman handia izaten dugu, eta elkarrekin bizi gara.

Nola daramazue familiako negozioa izan eta ezjakintasunean bizitzea?

Gogorra da. Bikotea gara, eta honetatik bizi gara. Jada bosgarren urtea da aurtengo uda, eta sendotzen hasiak ginen. Garairik okerreanean etorri da; aisialdi taldeen topaketak, bertsolarienak, trikitilarienak, antzerki mundukoak... ikasturte amaierako topaketa guzti horiek izaten dira martxoan, apirilean eta maiatzetan. Hori da gure diru iturria eta gure bizitzeko era. Bat-batean dena hankaz gora geratu zaigu.

Etorkizunari begira jarrita, zer ikusten duzu?

Ez dut irudikatzen. Zaila. Guk batez ere, uztaila eta abuztuan egiten dugu lan, eta orain erreserba guztiak zintzilik ditugu. Oso gogotsu gaude eta jendea animatzen dugu. Ahal dugun heinean irekiko ditugu ateak, baina ez dago gure esku.

«Ez da inolaz ere errentagarria izango»

JOSEAN MARTIN ZENTOL BIDE BIDE HOTELA

Astelehenean zabalduko ditu ateak Tolosako Bide Bide Hotelak; enpresetan dabilzan jendearen erreserba batzuk baino ez ditu.



ATARIA

okupatzea oso-oso baxua dugu. Langileek enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteetan jarraituko dute, eta ni bakarrik egongo naiz lanean. Ez da inolaz

ere errentagarria izango, baina saiatu beharra dago martxa hartzen.

Irekitzeko gogoarekin?

Gogoarekin baina gehiago, guz-

tia egonkortzeko gogoarekin. Izugarria izango zen nolabaiteko normaltasunera iristea, eta irekitzea. Poztuko nintzateke urgentziaz deitu beharko banie langileei lanera itzultzeko, baina ez dago lanik.

Protokolo aldetik zein betebeharrak dituzue?

Garbitasun aldetik hotel erraza da gurea. Ez dugu moketarik, alfonbrak kendu ditzakegu, eta dagoeneko egiten genuen garbiketa ozonoarekin. Gutxi gorabehera lehengoari eutsiko diogu, eta hartu beharreko neurri guzti horiek hartuko ditugu. Hala ere, gastuak igoko dira garbiketa zehatz guzti horiek egiteko. Hotel txikia da, eta

ez dugu konpartitzeko toki handirik, baina dugun apurra itxi edo kendu egingo dugu. Kontrolpean edukitzeko erraza da, oso pertsonala da.

Uda atejoka dator. Nola irudikatzen duzu etorkizuna?

Ez dut ikusten. Atzerritik datarren turismoari ez dugula izango iruditzen zait. Estatu mailakoa ere izoztu egingo dela pentsatzen dut. Oporrak hartzeko unea iristean, egoera hobeto baldin badago, agian, jendea ateratzera animatuko da. Nire ustez, estatu mailako bisitariak izango ditugu eta azken uneko erreserbekin egingo da. Frantzia edo Erresuma Batuekin lan asko egiten dugu, baina esan moduan, atzera botatzen ari dira. Logeletan erabilgarritasun handia egongo da, eta azken momentua jendea ez bada animatzen bidaiatzera, benetan gaizki ibiliko gara.

Zein mezu utziko zenuke?

Konfiantza izan behar dugu hau konpontzen ari direnengan, eta gu ere bagara horien parte. Guztiok dugu erantzukizuna, eta ea guztiok egiten dugun ahalegina. Kate bat da, eta hegazkinak ez badira mugitzen denok geldituko gara.

Lehiaketarako prestatzen

Mendi bizikletan eta mendi duatloian lehiatzen da Eneko Gurrutxaga amasarra; irailetik aurrera Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren egutegia egin ahal izango denaren esperantza du

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Sekula etxean egin ez dituenak egiten ari da Eneko Gurrutxaga amasarra konfinamendu garaian: «Ariketak, pisuak altxatzen, gimnasio moduko zerbait egiten ari naiz. Ez dugu material asko, beraz, tartean imajinazioa erabiliz ari gara, sagardo kaxa pisu moduan hartu eta hankarekin altxatuz. Arrabolarari nazka hartuta genion, eta orain berriz maitea dugu».

Mendi bizikletan eta mendi duatloian lehiatzen da Gurrutxaga, eta aire librean kirola egiteko aukera zabaldu zenean, hasieran egun gutxi batzuk bakarrik aprobetxatu ahal izan zituen: «Inguruko bat koronabirusarekin kutsatuta egon zitekeela eta, etxe barruan egoteko agindu ziguten. Azkenean, ez du eman positibo, eta larunbatetik berriro aterata ahal izan gara».

Aukera izan duenean, goizean goizetik aterata da amasarra kirola egitera, lanarekin eta haurraren zaintzarekin moldatzeko. «Faltan botatzen nuen, gozatu dut, eta berriz ere neke puntua lortu dugu», esan du Gurrutxagak. «Gustatzen zait nire burua egurtzea, baina kanpoan nagoela gozatzen, ingurugiroaz gozatzen, bai errepidean edo mendian bizikletarekin, zein korrika». Amasako Mendi Duatloia ohiko ibilbidea erabili du kirola egiteko, eta baita apartekoak ere: «Loatzo eta Belabieta inguruetara ere joan naiz, ahal dela itzuli



Eneko Gurrutxaga, etxean arrabolarekin entrenatzen. ATARIA

handi bat egiten saiatuz, lekuak errepikatzen ibili gabe».

Garai honetarako batez ere mendi bizikletako probak egiteko asmoa zuen Gurrutxagak. Horrez gain, mendi lasterketaren bat eta enduro probaren bat egin nahi zituen. Osasun larrialdiak bete-betean eragin dio mendi bizikletako denboraldiari. «Lehenengo proba egin zen, baina horretara ezin izan nuen joan, eta gero bertan behera geratu da denboraldia. Egoera berezi hau bukatzerakoan ea posible den zerbait antolatzea», esan du amasarrak. «Badakit proba batzuk irailera atzeratu dituztela».

Hain justu, Villabonako Irrin-

tzi elkarteak antolatzen duen mendi bizikleta martxa ez da aurten egingo. Sailkapenik gabeko kirol ekitaldia izaten da, baina hor ere parte hartzaileen artean lehiakortasun puntu bat ere izaten dela dio Gurrutxagak. «Jakin izan dut aurten urrian egin beharrean ekainean edo uztaillean egitekoak zirela, baina egoera hau ikusita bertan behera utzi dute».

IRAILERAKO GOGOZ

Euskal Herriko Mendi Duatloia- ren Zirkuitua aurten egin ahal izateko esperantza dute. «Egutegia ixteko gutxi falta zaigu, eta printzipioz esperantza badugu

iraila iritsi eta probak egiteko. Gero errealitatea zein izango da ez dakit, baina guk indarra badaukagu, gogoia ere bai, eta ea egoerak aukera ematen digun aurrera jarraitzeko».

Parte hartzailea izateaz gain, antolakuntzan ere aritzen da Gurrutxaga, batez ere Amasako Mendi Duatloian. Probak antolatzeko bi egoera itxaroten dituztela dio: «Batetik, kirol proba batzuk irailera eta urrira atzeratu direnez, mendi duatloietara jende gutxiago etortzea. Bestetik, kontrakoa: urtean zehar ia ezer egongo ez denez, jendea irailera gogoarekin iristea eta mendi duatloietan parte har-

tzea, eta jende asko izatea». Mendi duatloietan distantziak mantentzeko aukerak daudela gaineratu du. Esaterako, bizikletak egoten diren boxetan beti izan da tarte bat parte hartzaile batek bestera. «Hori bai, irteera puntuan pilatuko ginateke».

Gurrutxaga izan zen iazko Mendi Duatloia- ren Zirkuituko irabazlea. «Bederatzigarrena izan zen iazkoa, eta urte batean ezin izan nuen zirkuitu guztia egin lesio batengatik, baina beste urteetan hori egon naiz, eta aurtengoan saiatuko naiz ere hori egoten. Ez agian hain indartsu, baina saiatuko gara gerra ematen». Aurtengoan kirolarien errendimendua «nahiko inkognita» izango dela gaineratu du amasarrak: «Urtero prestaketa antzekoa izaten da. Martxoan abiatu, mendi bizikletarekin lehiatu, errepidean aritu, mendi lasterketa batzuk egin... Aurten inork ez du segitu bere urteroko patroia, eta auskalo nola izango ditugun indarrak irailean».

Amasan Loatzo Igoera-Jaitsiera mendi lasterketa antolatzen dute, eta aurten apirilaren 26an zen jokatzekoa, baina bertan behera geratu zen. Oraindik ez dute erabaki aurten beste dataren batean egingo duten. «Nahiko denbora gutxian antolatu daitekeen lasterketa bat da, beraz, gobernuaren partetik baimenak daudenean probak antolatzeko, orduan eseriko gara eta ikusiko dugu zein data diren, ze gogo dauden, eta zer egutegi dagoen», zehaztu du Gurrutxagak.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa Tolosa

Kirola egiteko neurriak malgutu direnean, Irene Caminos (Tolosa, 1998) trialeko txirrindulari tolosarrari, besteak beste, bizikletarekin entrenatzeko aukera zabaldu zaio.

Nola eragiten ari zaizu konfinamendu egoera?

Orain kalera atera daitekeela, askoz hobeto. Luze egin zait, eta orain egoera hobera doala ematen duenez, hobeto.

Eta denboraldiari dagokionez?

Etenaldia hasi zenean, justu asteburu horretan Espainiako Koparekin hasten ginen. Espainiako Kopako beste zenbait proba genituen, eta Espainiako txapelketa, baina bertan behera geratu da dena. Uda ondoren Kopako probaren bat egiteko aukera begiratzek ari dira, baina dena airean dago. Munduko Koparen lehen jardunaldia ere ez da egin. UCiren zain gaude, ez baitu oraindik ezer esan. Aurtengo urtean txapelketaren bat egitea oso zaila izango dela uste dut.

Munduko Koparen egutegia nola izaten da?

Ekainean hasi ohi gara eta azaroan bukatzen dugu Munduko Txapelketarekin. Denera Kopako bost proba aurreikusita zeuden, eta gero txapelketa Txinan egingo litzateke. Shangain egitekoa zen, baina horri buruz ere ez dakigu ezer. Kirolarien artean hitz egiten ari gara, eta gure ustez zaila izango da. Azaroa urrutidago, baina egoera hau luzerako joango dela dirudi. Besteak beste, jakin beharko da herrialdeko mugak irekiko diren edo ez. Esaterako, komentatu didatenez, Italiak ez ditu bere mugak irekiko datorren urtera arte, eta han Munduko Koparen bi proba egitea aurreikusita zegoen. Txinan nazioarteko txapelketaren bat antolatzea ere oso zaila izango dela pentsatzen det.

Eta egoera honen aurrean, nola ari zara enfokatzen urtea?

Zaila da helbururik izan gabe. Konfinamendua hasi zenean, entrenamenduak moldatu genituen etxean egin ahal izateko. Etxean ariketak egiten aritu naiz eta arrabola ere erabili dut. Bi hilabete ukitu gabe egon ondoren, azken egunetan hasi naiz trialeko bizikleta hartzen. Txapelketarik izango den jakin gabe zaila da urteari aurre egitea, eta oraingoz entrenatzen jarraituko dugu sasoi mantentzeko.

Zure kirolarentzako arrabola erabiltzea ere ondo etortzen da, beraz.

«Txapelketarik izango den jakin gabe, zaila da urteari aurre egitea»

IRENE CAMINOS
TRIAL TXIRRINDULARIA

Oztopo eta harri gainean hasi da berriro entrenatzen Irene Caminos trial txirrindulari tolosarra. Hala ere, aurtengo txapelketaren bat egitea oso zaila ikusten du, are gehiago nazioarte mailakoa bada.



Irene Caminos, asteburuan Hondarribian entrenatzen. ATARIA

Ni pisu batean bizi naiz eta bertan trialeko bizikletan ibiltzea oso zaila da. Baditut lagunak etxe handiagoa dutenak eta trialeko parke txikiak edo oztopo batzuk jarri dituztenak, behintzat zerbait ibiltzeko. Nik orain ezin izan dut egin, eta, beraz, sasoi mantentzeko arrabolarekin aritu naiz eta ariketak egin ditut.

Eta ez zara pisura igotzeko eskaileretan gora eta behera bizikletarekin?

Ez naiz ibili. Bai azken egunetan bizikleta igo nuela pisura, eta pare bat tontakeri egin nituela, berriz bizikleta hartzeko eta zerbait egiteko.

Kirola egiteko aukera zabaldu denetik, bizikletarekin praktikatu ahal izan duzu.

Goi mailako kirolari izanik, Gipuzkoan zehar mugitu ahal naiz eta ez dut ordu mugarik. Panorama asko zabaldu zait. Bestalde, pixka bat arraro sentitzen naiz ere, jendeak pentsatu dezakeelako ea nolatan ari naizen kirola egiten orokorrean debekatuta dagoen orduetan. Baimena, lizentzia eta nortasun agiria eramaten ditut gainean.

Normalean astean zehar Usabalgo trial parkean aritzen naiz, eta asteburutan mugitzen saiatzen naiz. Larunbatean Honda-

ribian egon nintzen. Normalean Ion Areitiorekin joaten naiz bertara entrenatzera; Areitiorekin Munduko Kopako probetara elkarrekin joaten gara. Azken finean, saiatzen naiz trialeko parke ezberdinetara joaten. Hondarribian morruan aritzen naiz entrenatzen eta oso ezberdina da. Irunen ere badago trialeko parke bat eta han dena harri handiak dira, eta aldatzea ondo etortzen da.

Trialeko bizikleta berriro hartzerakoan, nola sentitu zara?

Entrenatzailearekin komentatzen nuen kezka hori, asko gal-

duko nuela bi hilabete bizi-kletarekin praktikatu gabe. Baina, aurreko astean hasi nintzen bizikletarekin, lehen egiten ez nituen gauzak egiten ari nintzela komentatzen nion entrenatzaileari. Berak munduko txapel-duna entrenatzen du eta hark berdina esaten ziola komentatu zidan. Etxean entrenamenduak egiten aritu gara eta beste modu batera landu dugu potentzia. Arrabolarekin egon naiz egunero, eta nolabait nabaritu dut gero hori indarrean. Orain, adibidez, Uzturrera errazago igotzen naiz lehen baino.

Nola izaten da zure egunerokoa?

Egunean zehar bi entrenamendu saio baditut, goiz eta arratsalde aritzen naiz. Usabal ez dago irekita eta gimnasioko ariketa etxean egin behar ditudala da orain ezberdintasuna. Bestela, trialeko parkera joateko eta korrika egiteko beti bezala ibiltzeko aukera dut.

Bestalde, Tolosako Ama tabernako banatzaile moduan ari zara. Nola sortu da aukera hori?

Aurreko urtetik nire babesleak dira, eta jabeetako bat, Javi Rivero, nire lehengusua da. Berak komentatu zidan ea lagunduko nien banaketarekin. Hasierako ideia, bakarrik Tolosan banatzeko bazen, banaketa bizikletan egitea zen. Baina, azkenean, dezente zabaldu da, eta Donostiatik ere ibiltzen gara, eta autoa erabiltzen dugu. Esperientzia berri bat izaten ari da.

Trialerak itzuliz, nola ikusten duzu eragingo diola egungo egoerak zure kirolari?

Azkenean, kirol guztiei bezala, pentsatzen dut. Ez gara asko kirol hau egiten dugunak, baina bai jende asko etortzen dela ikustera. Ikusleak denak batera egoitea pentsatzen dut arriskutsua izan daitekeela, eta ea osasun larrialdia konpontzen joaten den eta pixkanaka bueltatzen garen lasaitasun egoera batera.





OSTEGUNA, 2020KO MAIATZAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Egiten jarraituko dugulako

Gaur bi hilabete dira koronabirusaren pandemia hasi zela; eguna baliatu nahi du 'Ataria'-k balorazioa egin eta eskerrak emateko

Erredakzioa Tolosa

Azken bi hilabeteetan, etxean konfinatuta egon beharra tokatu zaigu. Beharrezkoak ez ziren jardura guztiak eten zituzten eta bizitzeko beharrezkoak ziren horiek bakarrik utzi zituzten martxan. Horietako bat, komunikabideak izan dira, ATARIA izan da. Krisialdi guzti honetan hor egon gara, goizean esnatzean egunkaria eskura izan duzu, irratia ere konpainia egin dizu eta webgunea uneoro eguneratua izan duzu. Etxean egon zarenean, egunerokoari beste begi batzuekin begiratzen lagundu dizu.

Etxean sartuta egon zaren honetan, guztia izan dezazun, ATARIA-n lan egin dugu. Ohikoa baino gehiago, estresatuago eta urduria- go, baina noski, babes neurriak hartuta. Ia guztiek etxetik egin dute lan, lana eta zaintza partekatuz; distantziari neurria hartuz.

Denbora guzti honetan asko ikasi dugu eta krisialdi honetatik atera dugun ondorioetako bat hau izan da, talde bikaina daukagula. Talde diogunean, kazetariak bakarrik ez gara ari. Gure lana osagarri egiten duten beste kideak ere hor ditugu: banatzaileak, inprentetakoak, teknikoak... Prebentzio neurriekin eta beldur guztiekin lan egin dutenak. Asko gara, asko behar ditugulako. Ezin ahaztu era



'Tolosaldeko Ataria'-ko banatzaile bat, babes neurriak hartuta. ASIERIMAZ

berean, garai zail hauetan publizitatea mantendu duten iragarlee- kin eta baita noski, beti hor egon diren erakunde publikoekin ere. Mila-mila esker guztiei.

HAINBAT DATU

Koronabirusaren krisi honek gainera garbi erakutsi digu tokiko informazioak zer garrantzi duen. ataria.eus webguneko audientzia nabarmen igo baita azken bi hilabete hauetan. Otsailean 126.984 bisita eta 39.915 erabiltzaile izan genituen, martxoan aldiz 201.814 bisita eta 58.075 erabiltzaile, %59 eta %46a igoz. Eta apirilean berriz, 194.246 bisita eta 45.897 erabiltzaile. Alde honetatik ere oso pozik gaude, krisialdi honetan eskal komunikabideek duten garrantzia argi ikusi delako.

Baina datozen asteak oso zailak izango direla jakin badakigu eta kezkatuta gaude. Krisi honek gure

sektorea ere asko kolpatu du eta gure diru-iturri propioak asko murriztu dira. Honek ekonomikoki asko eragingo digu ATARIA-n, harpidetzak, publizitatea eta zerbitzuak asko jaitziko dira, uztaila arteko aurreikuspenen arabera, 30.000 euro, eta urte amaiera ere gogorra izatea aurreikusten dugu.

Egun berezi hauetan ATARIA-k zer eman dizun ez dugu ahazterik nahi. Hor egon garelako, egiten dugun hori zuentzat egiten dugulako. Egun hauetakoa eskertzeaz gain, laguntza ere eskatu nahiko genizuke. Aurrerantzean ere, zuen guztion laguntzarekin, egiten jarraitu nahi dugulako.

Mesedez, ez ahaztu ATARIA-k zer ematen dizuen, eta hori ematen jarraitzeko, guztion laguntza beharrezkoa da. Egoera on eta txarretan, ATARIA, beti, hor egongo delako. Beraz, gogoratu zuek ere gurekin eta egin Atarikide!

OSTEGUNA 14

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena lker ibarluzearekin eta eskualdeko berriak.
11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirola.
14:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Dj Bull.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Arantxa Orbegozo)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Itsaso Ugartemendia eta Miren Valverde)
12:30. 1, 2, 3 hemenda Mirul!
17:00. Adinberri
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Amets yoga estudioa

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreokalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ezegonkorra. Egun osoz hodeitza handia izango dugu eta euri kontuek ere gure artean jarraituko dute. Goizean apenas bustiko du eta nahiko ateri eutsiko dio. Arratsaldean bero-hodeiak garatzen joango dira eta iluntze-gau alderako puntualki ekaitzen bat edo beste izango da. Haizeak iparraldetik joko du eta termometroak jaitzi eta ez dira 14-15 gradutik pasako.

Bihar. Giro triste eta bustia. Egun osoz zerua estalirik mantenduko zaigu eta euri kontuak izango ditugu. Goizean euri zaparrada batzuk izango ditugu, tarte mardul samarrak. Arratsaldeko lehen ordutik iluntzerarte lasaialditxo bat izango da eta ez du euririk egingo. Egun aitaizterako ordea, berriz ere euri zaparrada batzuk izango ditugu. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura oso freskoa izango da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN URTEKO BILKURA NAGUSIA

Eguna: 2020ko maiatzaren 21a, osteguna
Ordua: 18:00
Bilkura **TELEMATIKOKI** egingo da
Izena emateko: www.galtzaundi.eus

Gai-ordena:
• 2019ko memoria eta balantzearen onarpena
• 2020ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena
• Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta onarpena
• Galderak eta eskaerak

Kike Amonarriz Gorria, Galtzaundi E. T.
Tolosan, 2020ko maiatz

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideak

12€
23€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez